

Oposiciones docentes 2024/ 2025 irakasle oposizioak		
Cuerpo o puesto/ Kidegoa edo lanpostua:	Especialidad/Espezialitatea:	Idioma/ Hizkuntza:
592	EUSKARA	EUSKARA
PRUEBA PRÁCTICA-PROBA PRAKTIKOA		

LEHEN PROBA_A ZATIA

Proba honek hurrengo hiru ariketa ditu:

- 1. ARIKETA:** Entzundakoa espezialitateari aplikatzea
- 2. ARIKETA:** Irakurritakoa espezialitatera aplikatzea
- 3. ARIKETA:** Trebetasun teknikoen erabilera

3 ordu dituzu proba osoari aurre egiteko.

1. ARIKETA: Entzundakoa espezialitateari aplikatzea

Audioa: Ingeniaritza didaktikoa irakaskuntza eleanitzerako

Itziar Idiazabalek, Genevako Unibertsitatean doktore eta Euskal Herriko Unibertsitatean katedraduna denak, emandako hitzaldia entzun ondoren, azaldu idatziz modu zehatzenean egile honek esandakoa segidan dituzun puntuak kontuan hartuz, eta ekarri egilearen adierazpenak hizkuntza-eskola ofizialetako ikasprozesuen testuingurura (testu generoak, trebetasunak, mailak, etab.).

- Zer den interakzio sozio-diskurtsiboa (ISD) eta nola eragiten duen ingeniartza didaktikoan.
- Zer den sekuentzia didaktiko minimoki fidagarria.
- Nola landu behar den sekuentzia didaktiko minimoki fidagarria.

Entzungaia bitan entzunen duzu. Audioak 8'36"ko iraupena du.

Idatziaren luzera: gehienez orrialde bat (250-300 hitz)

2. ARIKETA: Irakurritakoa espezialitatera aplikatzea

Irina Bokovaren *Hezkuntza berraztertzea* testua irakurri ondoren, adierazi idatziz zer esan nahi duen egile honek hezkuntzari buruzko gogoeta sakona egin behar dela eta hezkuntzari buruzko beste ikuspegi bat diseinatu behar dugula dioenean. Honetaz gain, egokitu aipatzen dituen adierazpenak hizkuntza-eskola ofizialen testuingurura:

- Etengabe aldatzen ari den mundua kontuan hartuta, beste ikuspegi bat diseinatu behar dugu.
- Konpetentziak eskuratu behar dira.
- Garrantzi handiagoa eman behar diogu aurrerantzean hezkuntzaren kalitateari.
- Hezkuntzak eskubide-berdintasuna eta justizia soziala hartu behar ditu oinarri.

Idatziaren luzera: gehienez orrialde bat (250-300 hitz)
--

Testua: Hezkuntza berraztertzea

Nolako hezkuntza behar dugu XXI. mendean? Gizartea aldatzen ari den egungo egoeran, zer helburu du hezkuntzak? Nola antolatu beharko litzateke ikaskuntza? Galdera horiek dira argitalpen honetan adierazitako ideien iturburu.

Egun, egoera nahasia dugu. Mundua gaztetzen ari da, eta giza eskubideen eta duintasunaren aldeko aldarrikapen gehiago egiten dira. Gizarteen arteko hartu-emanak inoiz baino estuagoak dira, baina intolerantzia-kasuak eta gatazkak ugariak dira oraindik ere. Botere-gune berriak sortu dira, baina desorekak handiagoak dira orain eta mundua presiopean dago. Garapen jasangarria eta inklusiboa lortzeko aukera ugari daude, baina horretarako erronka zail eta konplexuei egin behar zaie aurre.

Mundua aldatzen ari da, eta hezkuntza egokitu egin behar da. Mundu osoko gizarteak izugarri ari dira eraldatzen, eta horrek beste hezkuntza-modu batzuk eskatzen ditu. Gizarteek eta ekonomiek gaur egun behar dituzten eta etorkizunean

ere beharko dituzten konpetentziak sustatu behar dira. Horrek esan nahi du ez dugula mugatu behar alfabetatzera eta matematikako oinarritzko konpetentziak eskuratzera, hau da, garrantzi handiagoa eman behar zaie ikaskuntza-inguruneei eta ikaskuntzaren beste ikuspegi batzuei, munduan justizia, gizarte-berdintasun eta elkartasun handiagoa lortze aldera. Presiopean dagoen munduan bizitzen ikasteko balio behar du hezkuntzak. Kulturaren alorreko oinarritzko konpetentziak eskuratu behar dira hezkuntzaren bidez.

Hezkuntza funtsezko elementua da garapen jasangarrirako helburuen eremu global eta integratuaren barruan. Hezkuntzari berebiziko garrantzia ematen diogu, aldaketara egokitze aldera eta bizi garen mundua eraldatze aldera. Kalitate oneko oinarritzko hezkuntzaren bidez lortzen dira bizialdi osoko ikaskuntzarako beharrezko oinarriak, etengabe aldatzen ari den mundu konplexuan.

Mundu osoan barrena lortu da guztiok ikaskuntzarako aukera gehiago edukitzea. Baina, hala ere, ikaskuntza egokia eskaini behar dugu, etorkizunari begira. Hezkuntzarako aukera edukitzea ez da nahikoa, garrantzi handiagoa eman behar diogu aurrerantzean hezkuntzaren kalitateari eta ikaskuntzaren egokitasunari, lortuko badugu haurrek, gazteek eta helduek benetan ikastea. Eskolatzea eta hezkuntza formala funtsezkoak dira, baina ikuspuntu zabalagoa hartu behar dugu kontuan eta bizialdi osoko ikaskuntza sustatu. Ezinbestekoa da neskatoek Lehen Hezkuntza amai dezaten lortzea, baina Bigarren Hezkuntza eta haren ondorengoa egin dezaten ere bultzatu behar dugu. Halaber, garrantzi handiagoa eman behar diegu irakasleei eta hezitzaileei, aldaketarako eragile baitira mundu zabalean.

Hezkuntza da aldaketarako indar erabakigarriena, besteak beste, giza eskubideak eta duintasuna sustatzeko, pobrezia desagerrarazteko, jasangarritasuna lortzeko, eta guztiontzako etorkizun hobea eraikitzeko. Hezkuntza horrek eskubide-berdintasuna eta justizia soziala, kultura-aniztasuna, nazioarteko elkartasuna eta guzti-guztion erantzukizuna hartu behar ditu oinarri, horiek lortzea baita helburua, eta horiek dira, aldi berean, gizon-emakume guztion gizatasunaren oinarritzko alderdiak.

Horregatik guztiagatik egin behar dugu berriro hezkuntzari buruzko gogoeta sakona eta diseinatu behar dugu hezkuntzari buruzko beste ikuspegi bat, etengabe aldatzen ari den mundua kontuan hartuta.

3. ARIKETA: Trebetasun teknikoan erabilera

C1 mailako ikasle batek egindako idazlan bat duzu beheago, eman zaion kontsignari erantzun diona. Idazkiaren ebaluazioa jasoko duen txostena idatzi behar duzu, horretarako erabili behar diren baliabideak kontuan hartuz (ebaluazio irizpideak, deskribatzaileak eta puntuazioa).

Idazlana zuzentzeaz gain, idazkia egin duen ikasleari emango zeniokeen *feedback*-a ere jaso behar duzu.

Txostenaren luzera: gehienez orrialde bat (250-300 hitz)

Ikaslearen idazlanaren kontsigna:

Idatzi iritzi-artikulua *online* komunikabide batean (blog kultural edo aldizkari digitalean) argitaratzeko, eta adituak ez diren irakurleei zuzendua. Artikuluak 280 eta 300 hitz artekoa izan behar du.

Gaia: Kultura kontsumitzeko moduak. Gaur egun herritarrek kulturarako duten sarbidean, teknologiak eta plataforma digitalek duten eraginari buruzko iritzia eman. Aipatu honako hauek:

- Joera berriak
- Izan ditzakeen ondorioak

Ikaslearen idazlana:

Irakurle agurgarriak:

Gaur egungoa bezalako mundu frenetiko batean, saihetsezina da kontsumitzeko moduak aldatzea, eta hori bera gertatzen da kulturaren ekoizpenarekin. Denok dakigunez, Netflix edo HBO bezalako mundu-mailako streaming plataformen goraldiak eragin du ikus-entzunezkoen formatua aldatzea. Igoera hori gizartearen azkenengo beharrei ematen die konponbide, konfinamendu garaian kultura nola edo hala kontsumitzeko premiari, adibidez, baina ondorio negatiboak ere eragin ditu. Orokorrean, beraz, zer nolako ondorioak eragin ditu aldaketa honek, bai kultura eta bai gizarte-mailan?

Agerikoa da askoz erosoagoa egiten dela edozein motatako produktua etxean kontsumitzea, eta konfinamenduari esker eztanda egin duten mainstream plataformek kultura kontsumitzeko modurik eroso, zabal, azkar eta merkeena aurkeztu dute. Horrela, zeure gustukoak diren film, telesail edo abestiak edozein momentuan eta edozein tokitan eskuragai izateko aukera ematen zaizu, hegazkin batean joanda edo mendi gailurrean egonda ere!

Aitzitik, plataforma berri hauek izugarrizko eduki zabala eskaintzeko aukera dute, ia astero produktu berriak argitaratzen direlarik. Honi esker, kontsumitzaile mota guztiei edo gehienei egokitzen da produktua.

Aurreratu denez, erraldoi hauek ondorio negatiboak izan dituzte ere. Kontsumo mota berri hauen eraginez, ekoizle apalagoen lanek beherakada nabarmena pairatu dute, ezin baita sekulako enpresa boteretsuekin lehiatzea. Tokiko kulturak barneratzen dituen tradizio eta gertutasuna ere nolabait galdu egin dira, ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko erlazioa erabat hoztuz edo, are gehiago, desagerraraziz.

Bestalde, lehenik aipatutako produkzioaren masifikazioak edo etengabeko ekoizpenak bere alde iluna ere badu. Izan ere, produkzio-erritmo horren abiadurak kulturaren kalitatea pobretu egiten du.

Guzti hau kontuan hartuta, argi dago kultura nola jasotzen dugun modua erabat aldatu egin dela, eta horrek eragin zuzena duela gure gizartean eta kulturaren industrian. Nahiz eta plataforma hauek izugarrizko edukia eskaintzen duten, geure erantzukizuna da atzerriko enpresa inbertsonalaren eta auzoko liburu-dendaren artean hautatzea. Kantitatearen eta kalitatearen artean hautatzea.